



Miren eta Roberto
Etxebarria



koplak airean



Koplak airean...

“Jasotako koplak bakoitzak egoera desberdinetara eramane gaitzake, sortu zireneko momentuetan zentzu zehatza eta garaian garaiko lotura eukiko bazuten ere. Gure kulturaren altxor zatitxuak, hainbat, zorionez, ahozko transmisioari esker geugana iritsi direnak, eta beste asko, gure aurrekoen oroimenean geratuko zirenak. Agian...airean daude!

Orainean kokatuz, etorkizunera begira, guri dagokigu orain, koplak zaharrak oroitzuz, eta berriak sortuz, bidea osatzea”.

Roberto Etxebarria Goikoetxea

Kontu txikiak

Hitzak; lehenengoa eta azkena: Roberto Etxebarria. Gainontzekoak: Herrikoiak.
Doinua: Roberto Etxebarria

XX. garren mende hasierako domeka arrastiko jolasa irudikatuz; koplatan arituko ziran erromeri aurretik, bitartean edo ondoren ere, agian; gertatzen zirenak koplak bihurtuz. Neska saladearen gona gorriaren ilusinoa, dantzari eskasa zan lagunataz barre eginez, arbolara igo bai baina bajatu ezin zen neskatila,...zenbat kontu txiki koplen enkantuan!

HAMAIIKA LAGUN KANTUAN
ILUNTZEKO ARRASTUAN
ISTORIO TXIKIAK SORTUZ
KOPLA ZA(ha)RREN
ENKANTUAN.

ZORRONTZAN SALADA BATEK
EGIN DAU GONA GORRIE
BARNEAN IPIÑI DEUTSO
AGIÑADURE ZURIE.

DANTZAN EZ DAKIEN HORREK
OINAK NARRAZKA DARABIZ
HOBETO EGINGO LEUKE
PLAZAN AGERTUKO EZ BALITZ.

LEZAMAKO NESKATXA BAT
IKO GANEAN NEGARREZ
BAJA NEIZU BAJA NEIZU
JAUNGOIKOAREN AMOREZ.

HAUXE DA DESPEDIDEA
HAUXE DA DESPEDIDEA
AITEK JO DAU ALDABEA
PANDERO KOPLA KANTUAN
LOKARTU DA ALABEA
LOKARTU DA ALABEA
AITEK JO DAU ALDABEA
IXARTU DA ALABEA
HAUXE DA DESPEDIDEA.

Mari Kortederreko

Hitzak: Herrikoiak.

Doinua: Herrikoia. / Moldaketa: Roberto Etxebarria.

Maitasun kontuak eta beharrizanak nahastuko ziran sarri aspaldiko istorio txiki hauetan; batzutan egia borobilak, beste batzuetan berriz, erdi egiak eta askotan, ironiaz osatutako koplak. Ezagutu ote zuten kopla hauen protagonistek benetako maitasuna? Oxala hala izan balitz!

MARI KORTEDERREKO
OSTATU LOREA
BERAK BEHAR DAUALA
SENARTZAT EULEA.

SAGARTXO BAT ERRETA
BESTEA GORDINIK
AI ZE BIZIMODUA
GASTETAN DODAN NIK.

KANTARI NAGO BAINA
BIHOTZETIK TRISTE
NI HOLAN NAGOANIK
EZ DAU INOK USTE.

BART EIN DOT AMESETAN
ZUK MAITE NOZULA
BENETAN ESAIDAZU
EZ DALA GUZURRA.

Alaporka

Hitzak: Herrikoiak / Doinua: Roberto Etxebarria

Polka bizia, kopla zahar baten ikutuz bustia, gaur egun ere, edozein herriko
jaietan gertatu daitekeen irudi bat begietara ekarriz. Izan ere, nork ez du inoiz
ikusi, xelebrekeriz jositako pertsonaren bat plaza osoa barrearaziz,
kopla bat mereziaz.

AGURE ZAHARRA BIRLOKA
HIRU HAGIN TA BAT LOKA
BAINA HALAN DA GUZTIZ BE
DANTZAN DABIL ALAPORKA

Bihar etorriko da

Hitzak lehenengo 3 koplatan: Roberto Etxebarria. Gainontzekoak: Herrikoiak.
Doinua: Roberto Etxebarria.

Transmisioaren garrantzia eta testigantzari zuzendutako koplak sarreran,
pastoraletako kopla doinuari eta bide batez, Zuberoako anai-arrebei keinu eginik.
Hurrengo hitzei so eginik: apobetxatu momentua, eta sasoian sasoikoak bizi eta
gozatu. Eta...albokoak egiten duelako, norberak ez du zertan egin behar, holan
izanda, huts egin ezkeru, sarritan, aitzaki eta justifikazio inozoetan erori
gaitezkelako. Itxaropena edo...agian utzikeria azken kopla honetan?

“...bihar etorriko da!!”

HAIZEA DABIL KANTARI
ORBELAK BEREZ DANTZARI
ESKUTIK ORATU DOTSO
LOBATXUEK AMOMARI.

BADATOR TXIRPI UGARI
BASOAN BADA NABARI
AITTITTE POZAREN POZEZ
IKOPEAN ZANTZOLARI.

SEGIDAREN SEGIDEA
INOIZ EZ DESPEDIDEA
KOPLARI JARRAITU BEHAR
GOGOTSU BADAU JENTEA.

SAGARRA LORA LORA
SASOIE DANEAN
GAZTEAK URTEN JANTZAN
SOINUE DANEAN.

HANKAK ARINAK ETA
BURUA ARINAGO
DANTZAN HOBETO DAKI
ARTOJORRAN BAINO.

ARIN ARIN EITEN DAU
SOLOAN ERBIEK
HUTSAK EGITEN DEITUZ
PAUSURIK ERDIEK.

SARRITEN EGOTEN DA
ZOOA KANTETAN
NEURI BE ETXAT FALTADU
GOGOA HORRETAN.

UDEBARRIE DA TA
DENPORA BEROA
GAZTE ZOROA NAZ TA
ALEGRE GOGOA.

EGUZKIE JOAN DA
BERE AMAGANA
BIHAR ETORRIKO DA
DENPORA ONA BADA.

Kanta leuna

Hitzak: Herrikoiak / Doinua: Roberto Etxebarria

Justifikazioak, penak, beldurrak, baina aldi berean beti dogu norbait eskua
luzatzeko edota egia borobilez oinak lurrean jarriarazteko. Baina, zelan ez, sabel
kontuak asetuta, pena eta min guztiak leuntzen dira.

EUSKERAZ KANTAUKOTZUET
ERDERAZ EZ DAKIT ETA
ASPALDIEN SOINURIK BE
EZ DOT JO BERE EIN ETA.

NEURE PANDERO BARRIE
DURANGOTIK EKARRIE
HAMAR ERREAL PAGAUTA
DANA DA URRE GORRIE.

ARIN ARINTXUE DA
ITSUEN SOINUE
ZAPATAI URRATZEKO
AZPIKO ZORUE.

AINTXIÑE GAZTEA NINTZEN
ORAIN EGIN NAZ AGURE
ANDREAK TA UMEAK BERE
EZ NAURE IKUSI GURE.

GAZTEA GAZTE MODUEN
DIBERTSIÑO A GOGUEN
EZ DALA POBRERIK BIZI
ABERATSAREN MODUEN

TIRIKITI TXAINIA
BIHAR DOMEKEA
TXOKOLATEZ BETERIK
BANEUKO TRIPEA.

Miren eta Roberto
Etxebarria
koplak airean

Ekoiizpena: Roberto Etxebarria Goikoetxea
Grabaketak, nahasketak eta masterizazioa: “El Submarino Records” estudioa
(Teknikaria: Iñigo Escauriaza)
Argazkiak eta diseinua: Igotz Ziarreta.
Doinuak: Roberto Etxebarria Goikoetxea
/Herrikoia moldatua: Mari kortederreko
Letrak: Herrikoiak; “Dantza-Koplak”. Jabier Kalzakorta Elorza-Labayru
Fundazioa / Roberto Etxebarria (Bihar etorriko da, Kontu txikiak).
Koordinazioa: Idoia Markaida Carrasco

Musikariak:

Roberto Etxebarria Goikoetxea: Soinu txikia (trikitixa), panderoa eta ahotsak.
Miren Etxebarria Erauskin: Panderoak, bonbetea eta ahotsak.
Pablo Bueno Lumbreras: gitarra.
Ivan Allue Hermosilla: whistle-ak eta txirula.
Amaiur Cajaraville Garmendia: kontrabaxua.
Álvaro García Martínez: mandolina.

Harremanetarako: etxebarriaroberto@gmail.com